



LIBURUTEGI NAGUSIA
BIBLIOTECA GENERAL

LIBURUTEGI NAGUSIA
MEMORIA

2023

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA PUBLIKO
ETA AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

01/ Giza baliabideak

Zerbitzuko arduraduna: 1

Arloko arduraduna: 1

Liburutegiko Goi-mailako teknikariak: 6

Liburutegiko Erdi-mailako teknikariak: 2

Liburutegiko administrariak: 3

Mandatarari mendekoa: 1

Uztailean EHAAren LPZren aldaketa argitaratu zen. Horren arabera, Gobernantza Saileko Artxibo, Liburutegi eta Argitalpen Zerbitzuan sartu ziren Hezkuntzako Liburutegiari esleitutako bi plazak, bata liburuzainarena eta bestea liburutegiko administrariarena.

Laguntza tekniko baten laguntza izan da:

- 📖 Teknei enpresak Hezkuntza Liburutegiko funtsen tratamendu bibliografikoa egin du. Prozesu hori abenduan amaitu zen.

02/ Lokala, instalazioak eta ekipamendua

- 📖 225 m²-ko irakurketa-gela, 12 irakurketa-posturekin, Interneterako sarbidea duten 2 ordenagailurekin, inprimagailu batekin, fotokopiagailu-digitalizataile batekin, mikroformen irakurgailu batekin (papera eta digitala).
- 📖 144 m²-ko lan-gela.
- 📖 Hiru depositu Lakua IIko 2. sotoan, armairu trinkoekin: 761m², 6.880 metro linealeko apalategiarekin.
- 📖 25 m²-ko gela bat Lakua IIko 1. sotoan, telebista-monitore eta bideo erreproduzigailuarekin.

Liburutegien kudeaketa **AbsysNet** programaren 2.2 bertsioarekin egiten da. Programa hori liburutegi guztiek erabiltzen dute Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean, eta Liburutegi Nagusia da sare horren sukurtsala.

03/ Zerbitzuak eta jarduerak

EUSKO JAURLARITZAKO LIBURUTEGIAK HOBETZEKO PROIEKTUA.

Eusko Jaurlaritzako liburutegiak hobetzeko prozesuarekin jarraituz (2021ean onartu eta hasi zen), honako jarduera hauek egin dira:

2023an zehar, IVAPeko (Vitoria-Gasteiz) liburutegiko funtsen berrikuspena burutu da. Horien zati bat bakarrik sartu da Liburutegiaren funtsetan, eta gehienak garbitu izan dira lehendik zegoen funtsarekin bikoiztutako argitalpenak, zaharkituak edo ez egokiak zirelako. Funts horien artean, liburutegi ezberdinei eskaini zitzairen euskarazko literatura bilduma nabarmentzen da. Azkenik, Madrilgo Hizkuntza Eskola Ofizialeko Liburutegiari eman zioten. Hautatutako monografiak biratalogatu eta topografiatu egin dira. Euskarazko eleberriak izan dira irakurketa gelako Euskarazko literatura atalaren jatorria.

Lan hori amaituta, itxiztat jo da IVAPek Gasteizen duen liburutegia, eta haren lokalak itxi dira, beste erabilera batzuetarako.

2023ko urtarilean hasi zen Hezkuntza Liburutegiko funtsak aukeratzen. Kasu honetan, funtsen zati txiki bat Hezkuntza Sailak Eibarko EIMA zerbitzuaren bidez kudeatzen duen liburutegira transferitu zen; beste zati bat Liburutegi Nagusiaren funtsetara sartu zen, baina gehienak garbitu egin ziren. Apirilean eman zen amaitutzat berrikuspena eta

hautaketa, eta lokala entregatu zitzaion Baliabide Orokorren Zuzendaritzari.

Azken liburutegi honekin amaitutzat eman da 2021ean onartu zen Liburutegiak hobetzeko proiektua. Bere liburutegiari buruz Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailak hartuko duen erabakia falta da, proposamenarekin bat egitea baztertu baitzuen.

Liburutegiaren eginkizun nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileen informazio- eta dokumentazio-beharrak asetzea da. Horretarako, erreferentziazko monografiak eta obren **109.902** ale eta argitalpen seriatuen **3.321** titulu ditu, baita datu-baseetarako **40** harpidetza eta **120** aldizkari elektronikoko ere.

03.1. ESKURATZEAK

Monografiak: Berezko partidarekin eskuratutako funtsez gain, liburutegi propiorik ez duten eta katalogoan sartzen diren sailek aurrekontuen kontura egindako argitalpenen erosketa eta katalogazioa kudeatzen da, nahiz eta epe luzeko maileguan egon eskatu zituzten bulegoetan.

Beste erakunde eta partikularren truke edo dohaintzengatik katalogoko tituluak ere gehitu egin dira.

- Sartutako monografiak guztira: **1.089**
- Eskuratzetik datozenak: **509**

- Kosturik gabe (truke edo dohaintza bidez): **580**

HemeroteKa: **19** harpidetza berri gehitu dira aldizkari elektronikoetan.

Prentsa Digitala: Irakurketa-gelan, eguneroko **10** prentsa-bururen lineako sarbidea.

Lege-gordailu elektronikoa eta Liburutegi Nazionalaren hemeroteka digitala. BNEk autonomia-erkidegoei uzten dien sarbide-puntua dago irakurketa-gelan.

03.2. KATALOGAZIOA ETA PROZESU TEKNIKOA

4.580 monografia titulu prozesatu dira.

Monografiak **2.097** laburpen digitalizatu dira.

Katalogazioaren arloan, azpimarratu behar da Liburutegi Nagusia hasi dela migrazio-prozesutik EIPSra datozen autoritateak eguneratzen. Guztira **2.173** T100 autoritate osatu dira.

03.3. AZALEZTAPENA

2023an **1.364,86** euroko aurrekontua onartu zen Diario de Noticias de Navarra egunkaria azaleztatzeko (gure liburutegiari dagokio hori gordetzea, Euskal Prentsa Digitalizatzeko Partzuergoaren erabakiz).

03.4. BIKOIZTUEN ESKAINTZAK

Liburutegiak hiru eskaintza egin ditu: bikoiztuak, monografiak eta argitalpen seriatuak. Nabarmentzekoak dira Madrilgo HEOri euskarazko obrak eta Sancho el Sabio Erakundeari euskal gaiak eman izana.

03.5. MAILEGUA

Irakurketa-gelan maileguak ematea EAEko Administrazio Orokorreko langileei: **1.234** mailegu egin dira Liburutegi Nagusiaren funtsetik eta 163 IVAPeko Liburutegiaren funtsetik (Gasteiz) eta 16 Hezkuntzako Liburutegiaren funtsetik.

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen bidezko maileguak: EIPSren Katalogoarekin bat egin ondoren, liburutegien arteko **309** mailegu kudeatu dira

03.6. IRAKURKETA-GELAKO ERREPROGRAFIA-ZERBITZUA

27.136 erreprodukzio egin dira guztira, paperean zein digitalean.

03.7. DOKUMENTAZIO-ZERBITZUA

DialnetPlus Zerbitzuak. 2.779 aldizkari-artikulu eta monografia-kapitulu eskatu ditu 2023an. Erantzuteko batez besteko denbora 1,85 egunekoa da.

Eskatzaileak **285** izan dira, horietatik 177 emakumeak (% 62,1) eta 108 gizonak (% 37,89).

Dokumentuak aurkitzeko, Jaurlarizatik kanpoko liburutegietara jo behar izan da, batez ere unibertsitate-liburutegietara, kasuen % 12,19an (339 eskaera). Interneten % 2,91 aurkitu da (81 eskaera). Gainerako eskaerak (2.359, % 79,38) Eusko Jaurlaritzako liburutegietan ebatzi dira.

Dokumentazio-eskaerak.

2023ean 150 informazio- eta/edo dokumentazio-eskaera ebatzi dira.

03.8. SARE SOZIALETAN PARTE HARTZEA: X

Liburutegi Nagusiak **1.020** postak argitaratu zituen urtean zehar eta **991** jarraitzaile ditu.

03.9. NOBEDADEAK

Hilabete bakoitzaren hasieran, irakurketa-aretoko nobedadeen erakusmahaia eguneratzen da, eta bertan kontsulta daitezke urte honetan eta aurrekoan argitaratu diren eskuratutako azken lanak.

03.10. BULETIN BIBLIOGRAFIKOAK ETA ISDak

Hilero, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen Opac-en azken hilabetean Liburutegi Nagusiaren katalogoan sartutako monografia guztiak biltzen dituen bibliografia bat sartzen da.

12 berri-buletin eta 11 hezkuntza-buletin bidali ziren.

Nobedadeen buletina harpidedunen zerrenda batean banatzen da, eta urtean bitan Administrazio Orokorreko langile guztiei. Liburutegi Nagusiaren webgunean ere argitaratzen da.

Urtarrilean hasi ziren Hezkuntza Buletina ikastetxe publiko guztiei eta Berritzeguneei banatzen. Hilekoa, abuztuan izan ezik.

03.11. BESTE JARDUERA ETA PROIEKTU BATZUK

Liburutegiak Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzuarekin lan egiten du, honako lan hauek eginez: bibliotekonomiari buruzko aholkularitza, CIP fitxa, bere argitalpenen katalogazioa eta Dialnet-en aukeraketa bat sartzea.

2018an, orrialde instituzionala aktibatu zen Dialnet Plusen, eta Eusko Jaurlaritzarekin eta haren erakunde autonomoekin elkartutako egileekin lanean hasi zen. 2023an zehar, Eusko Jaurlaritzako Administrazio Orokorreko langileak diren edo

izan diren Dialnet-eko egileen profilak eguneratzen jarraitu da. 19 egile identifikatu dira, 528 guztira.

Gainera, 72 erreferentzia bibliografiko egin dira, Publizitateen Zerbitzu Nagusiak argitaratutako beste hainbeste monografiarenak.

Apirilean eta abenduan bi liburu azoka txiki antolatu dira irakurketa gelako atean.


03.12. PRESTAKUNTZA-JARDUERAK

Erabiltzaileen prestakuntza modu ez-presentzialean egiten jarraitzen da, telefonoz eta posta elektronikoz arreta emanez.

Gainera, urriaren 24an liburutegien eguna zela eta, bisita gidatuak antolatu ziren, euskaraz zein gaztelaniaz.

03.13. LANGILEEN PRESTAKUNTZA-JARDUERAK

Liburutegiko langileak “Dokumentuen kudeaketa datuen aroan” izeneko ikastaroan izan ziren. Dataseten balorazioa eta zaintza digitala “, ALDEEK urtarrilaren 26an antolatua.



03.14. ERAKUSKETAK

Uztailaren hasieran Frantziako Tourra Euskadin hasi zela eta, Bizikleta izeneko erakusketa bibliografikoa antolatu zuen irakurketa gelan.

Abenduan zehar erakusketa bat antolatu zen Euskadi Literatura Sariak 2023rekin saritutako lanekin eta saritutako pertsonen bildumako lan guztiekin. Aldi berean, Euskarazko literatura atal berria inauguratu zen irakurketa gelan.



04/ Barne-lankidetzak

Legesareako lantaldea IVAPeko Liburutegi Nagusiak eta Liburutegiak (Bilbo) osatzen dute. Horrela, Liburutegi Nagusian **174** aldizkari juridiko egin eta bidali dira egunero, **239** guztira. Martxoan marketin-kanpaina bat egin zen Jakinan, buletina erabiltzaileen artean zabaltzeko.

Liburutegi Orokorrak, Emakunderen Dokumentazio Zentroarekin eta Gobernantza Saileko berdintasun-teknikariekin batera, *Liburutegiak berdintasunean – zainketak* martxoan izeneko **erakusketa** bibliografikoa antolatu du.

Azkenik, Liburutegi Nagusia Zerga Administrazioako Zuzendaritzarekin lankidetzan aritzen da bere hileroko zerga-informazioko buletineko artikuluak hornitzeko.

Kultura Sailak lantalde bat sortu du aurten baliabide elektronikoen tratamendu bibliografikoari buruz Liburutegi Nagusiak parte hartzeko.

05/ Kanpo-lankidetzak

Beste hamar erakunderekin lankidetzan jarraitzen dugu Euskal Prentsaren Digitalizaziorako Partzuergoa deiturikoan. Partzuergoa 1991n hasi zen martxan, euskal prentsa digitalizatzeko, atzera begirako biltegiatze-kostuak saihestuz eta bertara sarbidea erraztuz.

2023an, Partzuergoaren jarduerarekin jarraitu du, eguneroko prentsa digitalizatuz.

Liburutegi Nagusiak BILGUNEA katalogo kolektiboan parte hartzen du. Katalogo hori Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publiko zein pribatuek osatzen dute, eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak sustatzen du.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA PUBLIKO
ETA AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2024